




# 11

# mesanotxean

**Gaztematikaz kanpoko teknikariek  
duten iritzia**

*"Mesanotxean" izenburupean Gipuzkoako Foru Aldundiak kaleratzen duen e-GAZTEMIRA buletin elektronikoaren monografikoen bilduma da. Bertan Gipuzkoako haur eta gazteria politikekin zerikusia duen gairen bat jorratzen da hiru hilabeteen behin.*

*Eginkizun horretarako, "Gazte faktoria berritzegunea" izeneko enpresaren laguntza teknikoa dugu "Mesanotxean" bildumaren edukiak prestatzeko orduan, GFAko Haur, Nerabe eta Gazteen Zerbitzuaren zuzendaritzapean.*



**mesanotxean**

# mesanotxean 11

**Izenburua:** Gaztematikaz kanpoko teknikariek duten iritzia.

**Egileak:** Haur eta Gazteen Zuzendaritza Nagusia. Gizarte Politikako Departamentua.  
Gipuzkoako Foru Aldundia.

Monografiko hau Mesanotxean Laborategiaren gogoeta prozesuaren ondorio da, eta haurren eta gazteen foru eta udal teknikariek parte hartu dute bertan. Joxe Jimenez (Gazte Faktoria) arduratu da laborategia dinamizatzearaz eta testuak idazteaz.

**Mesanotxean Laborategia:** Isabel Babace, Edorta Bergua, Josean Castaño, Nagore Garcia, Urko Imaz, Arantza Martiarena, Nagore Narbaiza, Onditz Leizaola, Izaskun Roperu, Maria Solana, Maite Telleria, Xabier Ximenez eta Teresa Zinkunegi.

**Bilduma:** Mesanotxean. Haur eta Gazteria politiken monografikoa

**Bildumaren koordinazioa:** Edorta Bergua (GFA) eta Joxe Jimenez (Gazte Faktoria)

**Diseinua eta maketazioa:** Gazte Faktoria Berritzegunea eta IPAR Komunikazio Grafikoa

**Hizkuntz aholkularitza:** Maramara Taldea

© Haur eta Gazteen Zuzendaritza Nagusia. Gizarte Politikako Departamentua  
Gipuzkoako Foru Aldundia

**Argitaraldia:** 2011ko udaberria

# Aurkibidea

## Proposamenen dokumentua: Irizpideak eta ekintza ildoak

orrialde 6/13

# Hitzaurrea

Ikasturte honen hasieran, Gaztematika Foro Teknikoan, Mesanotxean laborategia bultzatzea erabaki genuen. Tokiko eta Lurraldeko gazte teknikariz osaturiko lantaldea, Gazte Faktoria erakundeko teknikariek dinamizatzen dutena. Haurrei eta gazteriari buruzko politikak biltzen dituzten Mesanotxean monografikoak sortzeko eta ekoizteko prozesuan lankidetzan aritzea da bere egiteko nagusia.

Talde honek, lehen urrats gisa, laborategiaren lehenengo saioa egin zuen, Mesanotxean jorratu beharreko gai interesgarriak zehazteko eta 2010/11 ikasturtean garatu beharreko lau gaiak erabakitzeko. Saio horretan hiru hilabetez behin gai bat jorratzea erabaki zen: udazkenean, herritartasun aktiboaren sustapena; neguan, Gaztematikak duen lekua Gazteriaren Euskal Legearen proposamenaren aurrean; udaberrian, Gaztematikaz kanpoko teknikariek duten iritzia; udan, Gaztematikarentzako komunikazio metodoak eta tresnak.

Behin 2010eko udazkenaren amaiera aldera “mesanotxean 10. Gaztematikak duen lekua Gazteriaren Euskal Legearen proposamenaren aurrean” monografikoa argitaratuta, hausnarketa prozesu bat jarri genuen abian *Gaztematikaz kanpoko teknikariek duten iritzia* izenburupean. Haurren eta gazteen sustapen teknikariek egindako elkarrizketak izan dira oinarrizko dokumentuaren abiapuntua. Elkarrizketetan azaldutako iritzia baliagarriak izan dira Gaztematikaren balorazio kritikoa egiteko, martxoaren 17ko laborategian, baita haurren eta gazteen sustapenerako sistemak Gipuzkoan gaur egun dituen indarguneak eta ahuleziak antzemateko ere.

Ondoren, Gazte Faktoriako teknikariek proposamenak, irizpideak eta jarduera ildoak jaso zituzten dokumentu batean; interesgarria litzateke hura inplementatzea, Gaztematikaren hainbat alderdi hobetzeari begira. Mesanotxean 11ko zirriborroa idatzi ondoren, laborategian parte hartutakoei bidali zitzairen haien oniritzia jasotzeko.

Prozesu honen guztiaren emaitza une honetan irakurtzen ari zarena da: *mesanotxean – haurrei eta gazteriari buruzko politiken monografikoaren hamaikagarren zenbakia*.

# Proposamenen dokumentua:

**Irizpideak eta ekintza ildoak**



Mesanotxean 10en Gazteriaren Euskal Legearen zirriborroaren indarguneak eta ahuleziak antzeman genituen, eta horrez gainera, Gaztematikak hari egin diezazkiokeen proposamenak adostu genituen. 2011ko udaberri honetan, beste lurralde batzuetako gazteria profesionalak Gaztematikari buruz zer iritzi duten jakingo dugu.

Monografiko honetarako ondorengo helburuak ezarri ditugu:

- Arabako eta Bizkaiko profesionalak Gaztematika aurkeztea.
- Pertsona horiek Gaztematikaz zer iritzi duten jakitea.
- Honako alderdi hauei buruzko haien balorazia aztertzea: egitekoa, hartzaileak, helburuak, ekintza arloak, zerbitzuak...
- Gaztematikaren gaur egungo indarguneak eta ahuleziez adostasuna lortzea.

Monografiko honen oinarritzko dokumentua idazten hasteko, Arabako eta Bizkaiko sei gazteria profesional elkarrizketatu genituen. Martxoan haien lantokietan egin genituen elkarrizketak. Ondorengo pertsonak hartu zuten parte: María José Blanco eta Arantza Urioste (Portugaleteko Udala), Oscar Fernández (Gasteizko Udala), Raúl Montejó ( Arabako Foru Aldundia), Unai Amezaga (Getxoko Udala), María José Miralles (Bilboko Udala) eta Txema Ezkerra (Suspergintza aholkularitza enpresa).

Behin elkarrizketak transkribitutakoan, eztabaidarako oinarritzko dokumentua idatzi genuen laborategian. Ondoren, Mesanotxean 11 laborategian, bertan parte hartu genuen pertsonak iritzia eman genuen elkarrizketetako gai nagusiez. Jarraian, Gaztematikaren indarguneak eta ahuleziak laburbildu genituen. Eta laborategia bukatzeko, Gipuzkoako haurren eta gazteen sustapenerako sistema hobetzeko zenbait proposamen adostu genituen .

Bergarako eta Zarauzko teknikariek eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Haur, Nerabe eta Gazteen Zerbitzuko Sustapen Atalekoek parte hartu zuten laborategian. *Gazte Faktoria Berritzegunea* enpresa arduratu da *Mesanotxean 10* laborategiko saioak dinamizatzeaz eta edukiak prestatzeaz, Haur, Nerabe eta Gazteen Zerbitzuaren zuzendaritzapean.

Elkarrizketetan honako gidoi hau erabili da:

### ELKARRIZKETAREN GIDOIA:

*Elkarrizketetan, dokumentu osoa aztertu beharrean, 3. atalari (sistemaren ikuspegia, sustatzaileak, hartzaileak eta helburua), 4.ari (haurren eta gazteen sustapenerako sistemaren ikuspegia) eta 5.ari (sistemaren eskaintza: zerbitzu katalogoa) eman diegu lehentasuna.*

1. Nola ikusten dituzu Gaztematikaren definizioa, eragileak, hartzaileak eta egitekoa?
2. Egokia iruditzen al zaizu Gaztematikak hautatutako adina?
3. Gaztematikak proposatutako printzipioak, balioak edo irizpideak aproposak iruditzen al zaizkizu?
4. Proposatutako haurren, nerabeen eta gazteen beharrak, Gaztematikaren zerbitzu eskaintzaren bidez ase beharrekoak, nahikoa iruditzen al zaizkizu?
5. Zer deritzezu sistema honetan jasotako sei ekintza arloei (informazioa, orientazioa, bide-laguntza, hezkuntza aisia, adierazteko eta parte hartzeko bideak eta sortzeko eta ekoizteko bideak)?
6. Nola baloratzen duzu zuzeneko ekintza arloak bermatzeko eta hartzaileen beharrak asetzeko Gaztematikak proposatu duen erantzun egonkorra (zerbitzuak)?
7. Lurralde baten beharretan pentsatzen badugu, zure ustez, zein zerbitzu eta programa bermatu behar ditu gazteria sistemak? Zeintzuk izan beharko lirateke lehentasunezko ekintza arloak eta hartzaileak? Zerbitzu edo programaren batean gutxieneko ratioren bat (populazioa, lurraldea eta abar) ezarri beharko litzatekeela uste al duzu?
8. Dokumentuaren balantze orokor gisa, Gaztematikaren dokumentuaren indargune bat eta ahulezia bat nabarmentzea nahi genuke.

Proposamen dokumentu honetako lehen zatian, balantze orokor gisa, elkarrizketetako azken galderari emandako erantzunak bildu nahi genituzke: *Gaztematikaren dokumentuaren<sup>1</sup> indargune bat eta ahulezia bat nabarmentzea nahi genuke?*

### OSCAR FERNÁNDEZ (GASTEIZKO UDALA)

**Indargunea.** Dokumentu ona da, errealitatean gauzatu beharko diren asmoen adierazpen ona da. Lehen urrats gisa, ona iruditzen zait. Sistema honetan, jarraipena eta ebaluazioa egiteko prozedura funtsezkoa iruditzen zait. Gainera, sustapen sistemaren parte-hartze egiturak barne hartu behar dira, eta sistemaren eragileen parte hartzea bermatu. Baita gazteria politikak ezagutaraztearen alde lan egin ere.

**Ahulezia.** Sistemaren kudeaketa generikoa da, baina zuhur jokatu behar dugu, eta adierazleak markatu behar ditugu, batez ere, beste eragile batzuk (hirigintza) eta beste erakunde egitura batzuk tartean sartu nahi baditugu. Hartara, gazteria departamentuak ez du lan guztia bere gain hartu behar izango.

### RAUL MONTEJO (ARABAKO FORU ALDUNDIA)

**Indargunea.** Dokumentuan islaturik agertzen da, eta hori oso positiboa da, etxea ez dela teilatutik eraikitzen hasi behar. Ikusten da egungo egoera ezagutzen dela eta era antolatuan eta sarean eraiki nahi dela. Gazteria arloko politiketan, ohikoa izan da politikariak gazte-lekua eraikitzea eta gero arduratzea haren barrukoaz. Eta, oraingoan, badirudi alderantziz egin nahi dela.

Aintzat hartu nahi dugu Gipuzkoako lurraldean gazteria politikari buruz hitz egin eta adostasunak lortzeko egin den ahalegina. Giza eta ekonomia ahalegin horren nahia da gu denok jakitun izatea gazteria politiken garrantziaz. Gipuzkoan, jada, jakinaren gainean zaudetela uste dut. Gazteria departamentuak dituen finantzazioan eta baliabideetan ikusten da hori.

**Ahulezia.** Elementu ilunez hitz egiterakoan, nire ikuspegitik, Gipuzkoan oso ondo egi-ten da teoria, baina praktikara jaitsi behar da. Parte hartzeko modu berrietan, gizartean, pentsatu behar da, gazteekin eta elkarteekin nola lan egin. Zerbitzuak sortzeko eran ere, behera jaitsi beharra dago.

Inon agertzen ez den gai bat gazte-aterpetxeena da. Interesgarria iruditu zait Gipuzkoako haur eta gazteen sustapen sisteman zergatik ez den agertzen aipatzea. Gure esperientzia oinarri hartuta, proposamen bat helarazi nahi dizuegu: elkarteak ondo zaintzea eta sistemako zerbitzuetan interes-gune modura hartzea pentsatu beharko zenukete berririo. Gure ustez, informazio sistemetan behera jaisteko moduez gogoeta egin eta gaur egungo eremuak (hezkuntza-aisia) berriro zehaztu beharko zenituzkete, berriro asmatu, alegia.

1. *Gaztematika. Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistema. Haur eta Gazteen Zuzendaritza Nagusia. Gizarte Politikako Departamentua.* Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 2010. 60

### UNAI AMEZAGA (GETXOKO UDALA)

**Indargunea.** Ondo dagoen dokumentu bat da. Esparru propio hori identifikatu delako. Eta hortik etorriko da profesionalen duintasuna. Jakiteko zer den benetan bai Gazteri teknikari bat, bai hezitzaile bat, bai dinamizatzaile bat..Esparrua definitu gabe, nekez lortuko dugu profesionalen identifikazioa eta duintasuna. Ados jartzen bagara identifikatuko ditugu profesionalen baldintzak, prestakuntza eta abar. Horrela makinaria guztia martxan jarriko da.

**Ahulezia.** ... esanda dago, txarra da norabide desberdinetan lanean aritzea. Triste da eredurik gabe lan egitea eta okerrago, ez adostea norabide bera. Eta egoera arriskutsua izan daiteke nahi izanez gero Gipuzkoatik ateratzea. Topatuko duzuen errealitateak zuen eredutik urruti xamar egongo dira.

### MARIA JOSE MIRALLES (BILBOKO UDALA)

**Indargunea.** Niri, azkeneko zati osoa, kudeaketarena, oso ona iruditu zait. Oro har, abiapuntua, egiten dena sistematizatu eta ikusi ahal izateko nahia, oso ona iruditu zait... oso egokia dela uste dut. Orientazioari eta laguntzari buruzko gai osoa ere oso ondo dagoela iruditu zait, ez dakit zer izen ipini diozun... A bai, jarduera-eremuak... Bai, jarduera-eremuak, zerbitzu bakoitzean duten kokapena... Oso ona iruditu zait, eta ekimenei buruzko gai osoaren hasiera ere egokia iruditu zait.

**Ahulezia.** Bada gauza bat hain egokia iruditzen ez zaidana: kontuan hartu nahi omen diren eta hain garrantzitsuak omen diren eragile horiei guztiei buruzko diagnostikoa... Non ipiniko dira balantzan, zein aldetan, zer pisu izango dute egiazki? Errealistak izanik, dagoena kontuan hartuta. Hori da.

### ARANTZA URIOSTE (PORTUGALETEKO UDALA).

**Indargunea.** Nire ustez, ibilbide luzea egin duzue; oraindik praktikoa baino gehiago «teorikoa» dela uste dut, baina argi eta garbi adierazita dago; ondo ikusten dut... Sistematizatu izana, dena dela, zoragarria iruditu zait. Hainbeste jende eta hainbeste erakunde koordinatu izana ere, lorpen handia iruditzen zait. Bikaina benetan. Hausnartu eta eztabaidatu beharreko kontzeptu interesgarriak daudela uste dut. Berez, aldatzeko bada ere, jarraitu beharreko ereduia izango dela uste dut.

**Ahulezia.** Hain garbi ikusten ez dudana beste gauza bat parte hartzearena da. Sistema gisa sentibera samar egotea nahikoa erraza da. Ongi! Baina, batzuetan, parte hartzearena galdeketa edo eztabaida batekin konpondu ohi dugu. Eta parte hartzea ez da hori bakarrik. Gainera, biztanle multzo horrengana heltzea zaila dela uste dut. Nerabe eta gazteengana, alegia. Egia esan, ez dakit nola iritsi beharko den horiengana... Lehentasuna eman beharreko hartzailearen bat aukeratu behar banu, nerabeen aldeko apustua egingo nuke. Honako hau izango litzateke nire ordena: nerabearoa, gazteria eta, azkenik, haurtzaroa.

**MARIA JOSÉ BLANCO (PORTUGALETEKO UDALA).**

**Indargunea.** Hainbeste erakunde eta eragile mugitu eta koordinatu izanari dagokionez, oso lan ona iruditu zait. Edukiz bete nahi diren eremuen alorrean, bestalde, lan biribila delakoan nago.

**Ahulezia.** Gaztematika abian jartzeko zailtasuna.

**TXEMA EZKERRA (EDE FUNDAZIOA)**

**Indargunea.** Gazteria sistema (Gaztematika) baloratzen hasi baino lehen, bada, nire ustez, balioetsi beharreko elementu bat: Gaztematika eta hori sortzeko aurretiko prozesua Euskadin azken urteetan egon den hausnarketa eta definizio prozesurik egituratuena, antolatuena, koherenteena eta beste eragile batzuekin (udalekoak eta Foru Aldundikoak, bereziki) gehien partekatzen dena da. Abiapuntu hau balio bat da berez eta Haurren, Nerabeen eta Gazteen Sustapenerako Sistemai buruzko lan desberdinak baina osagarriak partekatzen ditugun eragileen arteko hausnarketa gabezia osatzera dator.

**Ahulezia.** Batetik, Gazteentzako Balio Anitzeko Zerbitzua definitzea. Esperientzia gutxi daude eta ekimenak sortzeko eta sustatzeko, beste sistema batzuekin lotzeko eta beste eragile batzuekin harremanetan jartzeko prozesuen oso antzekoa da. Euskadi mailan gazteriari buruz egiten diren jarduketari Gipuzkoak egin diezaiekeen ekarpen handienetako bat dela uste dut. Bestetik, Gazteentzako Informazio Zerbitzuak izan behar duen rola zehaztea. Euskadi mailan, ziurrenik, zerbitzu hedatuenak eta finkatuenak, eta, aldi berean, kontzeptu eta hedapen krisi handiena dutenak izango dira. Gogorarazi nahi dut Gaztematikak balio anitzeko zerbitzu bakoitzean kokatzen dituela informazio jarduketak, eta, beraz, atzera egin behar dugun edo ez, planteamendu hori errealitate nola bihurtu, zer lotura dituen beste zerbitzu batzuekin... hori guztia jakiteko lan egin behar dugu.

Elkarrizketatutako pertsona bakoitzaren balantze orokorraren berri eman ondoren, laborategian parte hartutakoek nabarmendutako indarguneak eta ahuleziak aurkeztu nahi dizkizuegu; hain zuzen ere, sei elkarrizketetan jasotako iritzi guztien artetik indargune bat eta ahulezia bat aukeratzeko eskatu zitzaien.

## Idei nagusien sintesia:

### 1. GAZTEMATIKAREN DEFINIZIOA, EGITEKOA, HELBURUAK, ERAGILEAK, HARTZAILEAK ETA PRINTZIOIOAK

#### Honako puntu hauek positibotzat hartzen ditugu:

**Definizioa.** Haurren eta gazteen sustapenean jarduteko gune propioa definitu eta zehaztu izanak ekarri duen erreferentzialtasun teknikoa.

**Egitekoa.** Sistema propio bezala (haurren eta gazteen sustapena) onartu izanak beste sistema batzuekin batera lan egiten lagunduko digu zeharkako politiketan.

**Definizioa.** Gipuzkoan haurren eta gazteen sustapenerako sistema publikoa sortzeko apustu sendoari emandako balioa.

**Sustapen politikaren helburuak.** Definizioak eta helburu orokorrek bat egin dezakete, hein handi batean, Gaztematikan garatutakoekin.

**Ekintza esparru nagusiak.** Ekintza esparru nagusi gisa sistemaren hartzailen autonomiarako eta emantzipaziorako bidean sustapena eta politika integrala identifikatzea.

**Hartzaileak.** Haurrak sistemaren hartzaile gisa hartzea. Izan ere, horrek pertsona hauen emantzipazio prozesu etengabea (haurtzarora-nerabezarora-gaztarora) garatzen lagundu dezake.

**Hartzaileak.** Familia haurren eta gazteen garapenerako sustapen sistemaren balizko erabiltzaile gisa identifikatzea.

**Printzipioak.** Beste lurralde batzuetako profesionalak Gaztematikaren oinarritzko balioekin eta helburuekin bat egiten dute.

**Prozesua.** Sistemarentzako esparru dokumentu bat adosteko partaidetza prozesu bat egin izana. Dokumentu horrek, lurraldean eta tokian-tokian onartu ondoren, erreferentzia izan nahi du haurren eta gazteen garapenerako sistema Gipuzkako udalerrietan garatzeko.

**Prozesua.** Erreferentzia bihurtu izana, beste lurralde batzuetako eragileek gazteria politiketan duten eguneroko eginkizunaz gogoeta egin dezaten.

#### Honako honetaz zalantza dute:

**Hartzaileak.** Haurrak hartzaile gisa sisteman sartzeak nolako zailtasunak eragin ditzakeen, ez dagoelako oso zabaldua beste lurralde batzuetan eta ez dagoelako hura bermatzen duen lege estalkirik.

**Zeharkako gazteria politika.** Lehentasunezko ekintza esparru hau jorrazteko eta sa-rean lan egiteko sistemak eta eragileak identifikatzeko sortu beharreko arkitekturaren zehaztapen falta.

**Prozesua.** Gaztematikaren esparru dokumentua sortzeko prozesuan gizarte eragileek nolako eginkizuna izan duten.

**Prozesua.** Gazte intereseko erakundeei (gazte elkarteak, kolektiboak, koadrilak...) sistemaren arkitekturaren benetan eta zuzenean parte hartzeko eskaintzen zaizkien espazioak.

**Eragileak.** Sistema garatzeko behar diren eragile sozialez (elkarte edo kolektibo motak) eta teknikoez (profesionalen profila) berezko diagnostikorik egin ote den.

**Finantzaketa.** Gaztematikaren finantzaketa bermatzeko aurreikusitako mekanismoak, laguntzak eta funtsak.

## **2. GAZTEMATIKAREN SEI EKINTZA ARLOAK (INFORMAZIOA, ORIENTAZIOA, BIDE-LAGUNTZA, HEZKUNTZA AISIA, ADIERAZTEKO ETA PARTE HARTZEKO BIDEAK, SORTZEKO ETA EKOIZTEKO BIDEAK)**

### **Honako puntu hauek positibotzat hartzen ditugu:**

**Ekintza esparruak.** Sustapen jarduera multzo osoa sei ekintza arlo egonkorretan ordenatu izana.

**Sortzeko eta ekoizteko arloa.** Gazteen sustapenerako politikan esku hartzeko funtsezko arlo gisa hartzea.

**Orientazio arloa.** Emantzipazio pertsonal eta sozialaren bidean lagunduko duten zeharkako politikak garatzeko funtsezko arlo gisa hartzea.

### **Honako honetaz zalantza dute:**

**Bide laguntza arloa.** Arlo hau sustapen politiken jardunari ote dagokion.

**Gazteria politiketako profesionalak.** Profesionalen profilak, maila profesionala, prestakuntza, zerbitzuko ratioak eta abar ez zehaztea.

**Zerbitzu katalogoa.** Tokian tokiko garapenean zer zerbitzu ratio nahi duen, zehatz-mehatz, Gaztematikak.

### 3. GAZTEMATIKAREN ZERBITZUAK ETA PROGRAMAK.

#### **Honako puntu hauek positibotzat hartzen ditugu:**

**Gaztematikaren zerbitzuen katalogoa.** Hurbileko zerbitzuak diseinatzeko bizitza zikloen (haurtzaroa, nerabezaroa eta gaztaroa) benetako aitortza.

**Gaztematikaren zerbitzuen katalogoa.** Planifikatutako bost zerbitzuetako bakoitzarentzat gutxienekoak zehazteko eta ezartzeko ahalegina.

#### **Honako honetaz zalantza dute:**

**Zerbitzuak.** Gainerako lurraldeek Gaztematikak hurbileko zerbitzuez egindako diseinua onartzen ote duten.

**Informazio zerbitzua.** Zerbitzu honek independentea izan beharko lukeen ala, dokumentuak, antza, dioen bezala, balio anitzeko gainerako zerbitzuetan txertatu beharko litzatekeen.

**Gazteentzako balio anitzeko zerbitzua.** Gaztematikaren plangintzan zerbitzu honen definizioari lehentasuna ez eman izana.

**Gazteentzako balio anitzeko zerbitzua.** Hasierako diseinuan sortzeko eta ekoizteko zerbitzuarekin zeharo bat etortzea.

**Sistemaren zerbitzuak.** Zerbitzu publikoen sarea garatzeko Aldundiaren konpromisoen, epeen eta finantzaketa moduen zehaztasun eza.

### **Gaztematika hobetzeko laborategian adostutako ideiak:**

Gazte intereseko erakundeek, sistemaren maila guztietan (hurbileko zerbitzuak, udalerrriak eta lurraldea), plangintzan, kudeaketan eta ebaluazioan parte hartzeko aukera izan dezaten bide egonkorrak ezartzea.

Gaztematikan gaur egun egiten ari den lanaren berri ematea eragile sozialei (EGK, tokian tokiko elkarteak...)

Ekitaldi publikoak egitea (jardunaldiak, aurkezpenak...), haurren eta gazteen sustapenerako sistemaren aldeko babes politikoa handitzeko.

Legealdi honetan aukeratutako politikari guztiei Gaztematika sistemaren berri emateko ahalegina egitea.

Komunikazio tresnaren bat sortzea (bideoa, memoria...), Gaztematika eratzeko eta inplementatzeko prozesuaren berri emateko.

Gaztematikaren sistema Gazteriaren Euskal Legearen oinarritzko eredu bezala proposatzea.



Gazteentzako balio anitzeko zerbitzuaren definizioari lehentasuna ematea eta hura azkartzea, ekarpen baliagarria da-eta beste lurralde batzuetako haurren eta gazteen sustapenerako politikentzat.

Informazio zerbitzuaren definizioari lehentasuna ematea eta hura azkartzea, gaur egungo funtzionaltasuna birkokatzeko eskaera dago eta.

Profesionalen profilak, maila profesionala, prestakuntza, zerbitzuko ratioak eta abar zehaztea.



## mesanotxean bilduma

- 01.** Gazteak eta arriskuaren kudeaketa.
- 02.** Emantzipazioa eta norberaren autonomia.
- 03.** Gazte lokalak.
- 04.** Sare birtualak.
- 05.** Gazteentzako balio anitzeko zerbitzuak.
- 06.** Gipuzkoako elkarteek Gaztematikari egindako ekarpena.
- 07.** Haurrak, nerabeak eta gazteak sustatzeko zerbitzuen ebaluaketa.
- 08.** Gipuzkoako gazteria arloko profesionalak.
- 09.** Herritartasun aktiboa eraikitzen!
- 10.** Gaztematikak duen lekua Gazteriaren Euskal Legearen aurrean.



Gizarte Politikako Departamentua  
Departamento de Política Social

Haur eta Gazteen Zuzendaritza Nagusia  
Dirección General de Infancia y Juventud



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
**Diputación Foral de Gipuzkoa**